

Euskal mitologia oparoa (eta II)



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Gure nerabegaroko matxinada guztien artean (eta *gure* diodanean nire inguruaz ari naiz, ez gure be-launaldiaz, zabalegia baitzait ikuspegi hori), bat izan zen bereziki ez-iraultzailea eta bereziki ez-originala: ordura arte gehienbat euskaraz bizi ziren haur haiek nerabe eta post-nerabe erdaldun eta erdaltzale porrokatu bilakatu ziren. Horra hor gure guraso-irakasleei, hots, euskara ikastea errebeldia zen garaitik zetozen helduei jotako hordagotxo. Ez ginen ohartu, espabilituok, dena erosoegia zela egiatako matxinada bat izateko.

Horraino autokritika (badakizue zein den lege orokorra marrazo txintxoaren itsasoan: autokritika labur, auzokritika luze). Argi utzi nahi dut ezen errebeldia gisa *mainstream* linguistikoa izatea hautatu zuen gure kuadrilla hura testuinguru sozial jakin batean mutatu zela gaztelaniantz, are ingeleserantz. Laburki ezen ez mozki: ez genuen (ikusten) euskaraz egiteko arrazoirik. Edo, atzekoz aurrera esanda, ez genuen (ikusten) dena erdaraz ez egiteko arrazoirik. Telesailak gaztelaniaz ikusten genituen, musika gehiena ingelesez entzun, eta jendea ere oro har erdaraz ezagutzen eta aditzen genuen kalean, tabernetan, no-

nahi. Geurez aukeratu genuen bidea, natural-natural. Horixe baitauka diglosiak: mukiak, eltxoak eta minbizia bezain natural urruntzen zaituela hizkuntza gutxitutik eta lerratzen zaituela hizkuntza nagusitara.

Oso-osorik irentsi genuen mito oraindik zabalduegi bat: ume-kontuetarako baino balio ez zuen hizkuntza moñoño bat zela euskara. Maite genuen, baina ez genuen behar, eta ez zitzaigun gustatzen. Horixe esaten du gaur egun ere gure lagun batek gaiaz betilun mintzatzen garenean, oso kontu sinplea dela: ez dugula lortu Euskal Herrian bizitzeko euskara behar izatea, eta, gainera, ez zaigula gustatzen euskara; azkenerako sinetsarazi digutela ez duela ingelesaren sintetikorik eta noranahikorik, frantsesaren goxorik, gaztelaniaren adierazkorrik, eta, are, ez duela izango egundo. Beste lagun batek, orduan, zera erantzun ohi dio: ahozkoan eta idatzizkoan atzo goizera arte izan genuen tradizioko esan-indarrak eta elipsiez eta bestelako baliabideez ahazten bagara eta ez baditugu geure garaira ekartzen eta egokitzen, nola ez gara, ba, ezin-minez frustratuko? Geure buruari ez diogu eskatzen hizketa eta idazketa geuregain eta funtzional

bat ontzen saiatzea: aitzitik, geure burua torturatzen dugu albokoekin konparatuz eta pentsatuz ezin dela, ez dela posible, *zeniezadake*-ka ezer gutxi taxutu daitekeela duin. Euskara gutxiesten dutenek sartu diguten aspergarren ziria, mitoa eta konplexua, orain guk geuk maiztxo elikatua.

Nik bi guraso-hizkuntzatan hazteko zortea izan nuen; baina bietako batean ezgai, ez-hiztun bihurtu nintzen oso urte gutxiren buruan, arnasa batean. Askoz beranduago ohartu naiz zenbaterainoko galera izan den hori, eta zenbateraino malkartu didan eta malkartzen didan oraindik ere euskarara bueltatzeko bidea. Zeren euskarara bueltatzea, euskarara heldutan sartzea bezala, egunero burugor eta haize kontra berretsi beharreko erabaki bat baita hemen eta gaur, tamalez. Irene Arrarats Lizeagak ederki esplikatu zuen hedabide hone-tantxe, Miren Artetxe Sarasolak egin zion elkarrizketa batean: “Euskara ikasteko aukera izan eta ez ikastea hautu politiko bat da, erdal kulturaren aldekoa, baina ikasteko aukerarik izan ez baduzu, hautu politikoa ez duzu zuk egin: zuri horretarako bidea eman ez dizunak egin du zure partez”. ●